

IPUIN LEHIAKETA 2019

LH3 - LH4 kategoria

94 ipuin aurkeztu dira. Epaimahaia: Ainhoa Urien eta Yolanda Zubillaga.

**-Lehenengo saria: “Fantasiaren munduan”, MADDI AJURIA
AJURIA**

Ipuin mamitsua, irudimentsua. Hizkuntza aldetik aberatsa.

"Besteak bezalako egun eguzkitsu batean mendira joan zen bere familiarekin. Loreen usain gozoak eta txorien txorrotxioak Colette baso barrenera gidatu zuten, galdu zen arte".

**-Bigarren saria: “Nire Crow arranoa”, IHINTZA BENGOETXEA
ESPARZA**

Birraitonari jazotako istorio bat kontatzen du, espresuki adieraziz transmisio bidez iritsi dela beraganaino. Ipuina ez da oso mamitsua, baina idazkera oso ona du, eta kontatzen duen istorioak badu jakintza; hau da, edozelako oparien onarpena eta esker ona bultzatzen ditu, askotan hasieran gustuko ez ditugun opariak gerora eder bezala antzeman ditzakegula adieraziz.

"Hau, nire birraitona txikia zenean gertatu zen... Birraitonak aititeri kontatu zion, aititek aitari eta aitak niri. Honela gertatu omen zen..."

-Hirugarren saria: “Mutil bat pianista izan nahi zuena”, ORIOL ARKARAZO PUIGGRÒS

Idazkera aldetik akats batzuk dituen arren istorioa mamitsua da, eta jakintzaz betea, LH3-4ko ume batek argi edukitzea ia-ia nahi duzuna lortu dezakezula saiatzen bazara, nahiz eta inork ez sinetsi zugan eta jendeak arrarotzat hartu... hori oso garrantzitsua da.

“Etxean piano bat zuen eta egunero ensaiatzen zuen. Izaik gauean pianojole famatu bat zela amesten zuen”.

LH5 - LH6 kategoria

57 lan aurkeztu dira. Epaimahaia: Karol Urien eta Ziortza Uribelarrea.

-Lehenengo saria: “Euskaldun-amerikar baten gorabeherak”, JONE BERRIZBEITIA MUNITXA

Oso ondo idatzita dagoen ipuina da, originala eta irudimentsua. Umorea erabiltzen du euskararen gainbeherari buruzko ardura azaltzeko: hain preziatua den euskara zaindu egin behar dugu “sasiko euskara” bilakatu ez dadin.

“Euskal Herria ez dun Nevada bezalakoa. Egunen batean ikusi egin behar ditun hango zelai eta soroak, hango mendi tontorrak, ezagutu behar dun nire jaioterria, ikusi egin behar dun Euskal Herria. Eta ai hango euskara, hura bai zoragarria.

...

- Nongoa zara?- galdetu dit batek
- Estatu Batuetakoa. Birraitonaren baserriaren bila nabil.
Erakutsiko zenidakete Goxentzia baserrirako bidea?
- Ze-da-ke-ke-te zer? Zu bai zaudela mal del kaskete. Ze euskara da hori, Estatu Batuetakoa? Ke penoso tia”.

-Bigarren saria: “Bizidunen mundua”, LEIRE SEGURA ZABALETA

Irakurzaletasuna piztuko dien fantasia zoragarri batean murgilduko dira protagonistak. Aipagarria da pertsonaien arteko konplizitatea adierazteko era. Ezusteko amaiera polita eta borobila.

“Hurrengo egunean, bikiak jendez beteta zegoen herri batean agertu ziren. Plaza erdian 10 urte inguruko neska bat zegoen. Neskak irribarretxo bat bota zien eta desagertu egin zen”.

-Hirugarren saria: “Meiren ametsa”, UXUE GORROTXATEGI AGIRRE

Enpatia handia adierazten duen istorioa da, munduko arazoei buruz kontzientzia handia azaltzen duena.

“Fabrika oso iluna zen, ia-ia ez zegoen argirik eta hotz handia egiten zuen han. Lurra oso zikin zegoen; umeak oso argal zeuden eta beraien aurpegiek tristura eta beldurra adierazten zuten, eta gorputza beltzunez beteta zuten. Umeak, lurtean jesarrita, zetazko arropak josten zeuden”.

DBH1 - DBH2 kategoria

11 ipuin aurkeztu dira. Epaimahaia: Aitor Bizkarra eta Irati Bazeta.

-Lehenengo saria: "Hitzen pisua", LEIRE FLORES SALAZAR

Ipuinak sexismoz betetako eszenatoki baten aurkezpena egiten digu, jendartean presente dagoen gaia jorratuz. Gainera, ez du, ohi den bezala, amaiera zoriontsu mitifikatua aurkezten.

“Alexiak hamabi urte zeramatzan isilik, baina momentu hartan, lurretik aurpegia altxatu eta aitaren babarrun platerean txistua bota zuen”.

-Bigarren saria: “Etiketak”, LIDE SALABERRIA SANCHEZ

Institutuan edota nerabezaroan izan ohi diren barne zein kanpo gatazkak azaltzen ditu idazleak. Norberaren lekua aurkitzea eta, aldi beran, talde nagusitik at gelditzeko beldurra. Ipuina norberaren izaera ez ezkutatzeko mezuarekin borobiltzen du idazleak.

“Horien azpian ikusezinak daude: ‘frikiak’, itsusiak, tontoak, oso azkarrak... Nirea zein den? Ni beti izan naiz ‘arraroa’.

‘Arraroa’ zergatik? Ez nago oso ziur”.

-Hirugarren saria: “Ikusezina izan beharko”, LUCIA MUNILLA BOTE

Idazteko modu hurbil eta freskoa azaltzen duen ipuin irudimentsua da, gainera, errealitatea eta fikzioa ondo nahasten dituena.

“Plan bikaina abentura hasteko. Hain da atsegina lasai zauden bitartean familia zoriontsuak ikustea, bikote maitekorrak, lagun kuadrilla gazteak zein helduak... Dena da zoragarria kontrakoa gertatzen den arte”.

DBH3 - DBH4 kategoria

28 ipuin aurkeztu dira. Epaimahaia: Inma Unzueta eta Sugar Perez.

-Lehenengo saria: “Etxeko abestia”, NAROA LOIZATE IZURIETA

Ipuin honek bizitza baten laburpen indartsua egiten du, jaiotzatik heriotzara. Deskribapenen zehaztasunek irakurlea erabat murgiltzen dute istorioaren 3 pasarteetan. Idazteko era zuzena gailentzen den arren, bada tokia hitzekin jolastu eta irakurlea liluratzeko.

“Abestian hain murgilduta egon naiz ez naizela konturatu amaren taupaden gailua ez dudala entzuten. Pi-pi konstante hori soinu luze batek ordezkatu du”.

-Bigarren saria: “Kongotik mundu berri baterantz”, JUNE CARCAVILLA TABOADA

Errealitate gordin urruna hurbiltzen digu kontakizun honek, atsekabeen ostean itzaropena eta ilusioa piztu ahal direla. Biolentziak ia familia gabe utzi ondoren, aukera berri baten bila Valentziara heldu den mutil nerabe baten istorioa azaltzen duen ipuina da.

"Itsasoan hainbat hilabete eman genituen, oso txarto pasatu nuen, ia 80 pertsona geunden txalupa nimiño hartan, gurasoak eta anaiak gogoratzen nituen, gose handia nuen, bero handia egiten zuen... Baina txarrena jendea gosez eta egarritz hiltzen ikustea izan zen".

-Hirugarren saria: “Ez naiz ezertaz gogoratzen!”, HAIZEA ARANBURU URRUTXURTU

Memoria galdu ostean, osasun egoera larritik pixkanaka hobetzen doan pertsonaren barneko pentsamenduen segida, hainbat hilabetetan zehar.

"Gaur gorputza askoz hobeto sentitzen dut, indartsuago. Eta sendagileei entzun diedanagatik egoera hobean nagoela dirudi. Oraindik ez dakit ziur zer dudan, ia inoiz ez baitute nire aurrean nire egoeraz hitz egiten".